

Ariketa:

AEBetako produkzio edo ekoizpen-indize eta nekazal eta abel ekoizpen-faktoreei buruzko 1948. urtetik 1993. urterarteko urteroko datuak ditugu, 1982. urtea oinarri bezala hartuz¹. Kontutan hartzen diren aldagaiak hurrengoak dira:

year	1948-1993 (n=46)
output	Nekazal eta abeltzantzako ekoizpena
labor	Lana faktorea
land	Ustiapenaren tamaina
machines	Horniduran egindako gastua
energy	Erabilitako energia
fert	Ongarri kimikoetan egindako gastua
seedfeed	Hazi, pentsu eta ganadu erosketan egindako gastua
others	Bestelako gastuak

1. Zer esan nahi du indizeek 1982. urtea dutela oinarritzat? Indize guztientzat oinarria berdina izango ez balitz ikerketa arrazoizkoa litzateke? Zergatik? Arazoa konpontzeko zer egin beharko genuke?
2. Kontuan hartutako produkzio faktoreak nekazal eta abeltzantza ekoizpena azaltzeko erabilgarriak diren aztertze asmoz, zehaz ezazu produkzioaren logaritmoa inputs guztien logaritmoekin erlazionatzen duen eredua.
3. Interpreta itzazu ereduko koefizienteak.
4. Estima ezazu eredua Karratu Txikiarren Arrunten bidez. Interpreta itzazu lana eta ustiapen tamaina aldagaien koefiziente estimatuak.
5. Azal itzazu lortutako emaitzak: doikuntzaren egokitasuna, aldagaien esanguratasuna eta koefizienteen estimazioen zeinua. Arrazoi ezazu emaitzak egokiak diren.
6. Kalkula ezazu aldagaien arteko koerlazio matrizea eta komenta ezazu lortutakoa. Arazoren bat dagoela uste duzu?
 - a) Kalkula itzazu aldagai azaltzaileen bariantzaren inflazio eta jasankortasun faktoreak. Interpreta itzazu emaitzak.
 - b) Kolinealitatea antzemateko beste modurik ezagutzen duzu? Erabili ezazu.
 - c) Zer ondorioztatu dezakezu?
7. Burutu ezazu banaka ez nabariak diren aldagaien baterako esanguratasun kontrastea.

¹Datu fitxategia: data9-5.gdt. Iturria: Ramanathan, R. (2002) *Introductory econometrics with applications*, 5. ed., South Western. Jatorrizko iturria: *Economic report of the President, 1996*, B-95 eta B-96 taulak.